

*Harrotu dira PNVkoak. Konfrontazioa bilatzen dugula esanez. Zailtasunak ditu PNVk garai berrietara egokizeko, zailtasun latzak gainera. Eta agian horregatik nahiago izan ditu garai bateko hizkuntza kuartelarioa berreskuratzea. Hizkuntza eta Ertzainburu zitalenak ere.*

*Horregatik, Pasaiaiko PNV bronka bila datorrenean galdera da: zeinek hitz egiten du Pasaiaiko PNVren ahotsaz? Zein da salbe hitzuna? Zeinek idatzi die diskurtso gogor bezain esperpentiko hau?*

*Bada, hautagai batzuk ditugu: Agian Portuko Agintariak, PNVko militatante ezaguna dena. Agian Aldundiarik gabeko gelditu denak. Agian tokiko lobbykoek...*

*Ez dakigu. Ugariak baitira PNV markapean biltzen diren negozioak (galdetu Bidegin, zabor mafian, edo Bizkaiko hainbat eta hainbat udalerritan).*

*Horregatik, Pasaiaiko PNV bronka bila datorrenean, garbi dago alderdia finantzatzen duen horietako bat beldurtu dela.*

*PNV egiten ari den guztiak atzera garamatza. Tira, daramatza. Izan ere, bronka, konfrontazioa, lohia,... PNVren estilo zatia da. Are gehiago garai berri hauetan.*

*Zer egingo dugu ba. Gu aurrera begira, aurrera goaz. Hor geratuko zarete, zuek hala erabakita.*

*Hori bai, lasaiago hitz egin gure udaleko ordezkarietara buruz mesedez.*

*Bukatzeko, zinegotziak aipatu ditugula, azken plenoa eta gero zuen bozeramaile Nahikari Oterminek dimisioa aurkeztuko du ala ez? Izan ere, argi geratu da ezin dela Udaleko zinegotzi izan eta Pasaia defendatu eta, aldi berean, Portu Agintaritzan Eusko Jaurlaritza, hau da, PNV ordezkatzeko.*